

**1822/2025 EBAZPENA, urriaren 10ekoa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESiko Kirurgia Baskularrako zerbitzu burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.**

## AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen abuztuaren 12ko 1408/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESiko Kirurgia Baskularrako zerbitzu burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa sistemaren bidez (2025eko irailaren 11ko EHAA 172 zk. eta 2025eko irailaren 18ko BOE 225 zk).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko urriaren 9an amaitu zen.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

## EBAZTEN DUT

Lehenengoa.— Donostialdeko ESiko Kirurgia Baskularrako zerbitzu burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea (I. Eranskina).

Bigarrena.— Ebazpen hau Osakidetza webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Donostialdeko ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostia, 2025eko urriaren 10a.

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentea.  
EB (1297/2025 Ebazpena, uztailaren 24koa).

Langileen zuzendaria,  
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.

  
  
DONOSTIALDEA ESI  
OSI DONOSTIALDEA  
LANGILEEN ZUZENDARITZA  
DIRECCIÓN DE PERSONAS

## I. ERANSKINA

### DONOSTIALDEKO ESIKO KIRURGIA BASKULARRAKO ZERBITZU BURUA IZENEKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Leire Ganzarain Valiente

Baztertuen behin-behineko zerrenda:

- Inor ez.

Donostia, 2025eko urriaren 10a.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.